

Sagardoetxea,

urrezko Bikain ziurtagiria duen Euskal Herriko museo bakarra

Sagardun Partzuergoa 2003. urtean sortu zen eta Astigarragako Udalak, 14 sagardogileek eta herriko 7 talde kulturalak osatzen duten entitate publiko-pribatua da.

Sagardun Partzuergoaren jarduera honakoa da: **Sagardoetxean** sagardoaren ondarea zabaltzea eta mantentzea (bisita gidatuak, dastaketa bereziak, kultur emanaldiak, familientzako tailerrak, erakusketak, sagardoan berezituriko dokumentazio zentroa, etab.); "Sagardo Berriaren Eguna", "Santa Ana" eta "Sagar Uzta" bezalako **ekitaldiak** antolatzea; **esperientzia turistiko** ezberdinak sustatzea (probaketak, Santiagomendiko Sagardo Bidea, sagardoa eta gazta, etab.); "Sagardoaren Lurraldea Boletina" eta "Sagardoaren Hiztegia" bezalako **argitalpenak burutzea**; beste eskualdeekin elkarlanak garatzea "Sagardoaren Lurraldea" markapean.



Sagardoetxeako estatistikak agerian jartzen diguten moduan, 2013an museoan egin genituen bisita gidatuen %56 gaztelaniaz izan ziren, %27 euskaraz, %12 ingelesez eta %5 frantsesez. Beraz, gure eginkizuna **bertakoei eta kanpotik etortzen diren bisitariei gure kultura eta usadioak zabaltzea** da.

Sagardoetxean gure eguneroko jarduera euskaraz egiten dugu baina kanpora begira gauzatzen dugun komunikazioan hizkuntza ezberdinen erabilera ikusita, beharrezkoa iruditu zitzaigun kanpo ebaluazio batek **Sagardoetxean egiten dugun euskararen erabilera maila neurtzea** eta, horretarako, **Bikain ziurtagiriaren** eskaera egin genuen Eusko Jaurlaritzan.

Bikain ziurtagiria, Euskalit Kalitaterako Euskal Fundazioak eta Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak ematen dute eta enpresa nahiz erakunde batean euskararen presentzia, erabilera eta kudeaketa egiaztatzen ditu. Bikain ziurtagiriak hiru maila dauzka eta kolore bana dute: beltza, zilarra eta urrea.

Hala, talde ebaluatzailearen bisita jaso genuen Sagardoetxean eta ebaluazioaren ostean **Bikain Ziurtagiriaren Goi Mailako agiria** eskuratu genuen. Horri esker, **urrezko Bikain ziurtagiria** duen **Euskadiko museoa bakarra eta maila hori eskuratzen duen lehendabiziko museoa** da Sagardoetxea.

Hemendik aurrera, ebaluaketatik ondorioztatutako proposamen eta zer hobetuak aztertu eta, ahal den neurrian, epe luze zein ertain eta motzerako helburuak ezarriko ditugu.

SAGARDOETXEA MUSEOA